


Año XLIX. urtea

124 - 2017

Uztaila - abendua

Julio - diciembre



# FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

---

**Axularren lantegian.  
Iturbegi ezezaguna  
*Geroren* lehen  
kapituluaren bilbean**

Patxi SALABERRI MUÑOA

---

# Axularren lantegian. Iturbegi ezezaguna *Geroren* lehen kapitulua bilbean

---

En el taller de Axular. Fuente desconocida en la trama del primer capítulo de *Gero*

---

At Axular's workshop. An unknown source in the plot of the first chapter of *Gero*

Patxi SALABERRI MUÑOA  
Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU  
patxi.salaberri@ehu.eus

Jasotze data: 2017/06/13. Behin-behineko onartze data: 2017/07/31. Behin betiko onartze data: 2017/08/04.

## LABURPENA

Axularrek berak aitortu bezala, *Gero* liburuan bada hainbat leerroalde garaiko deboziozko liburuetatik jasoak direnak. Ez ohi dira, halere, betegarri gisa tartekaturiko pasarteak, kapituluak zurkaizteko erabilitako teknika erretorikoaren tresna baizik. Iturburu-edo izan omen ziren horietako baten identifikazioa bide (Guzman, *Bienes de el honesto trabajo*, 1614), behin-behineko aletxoak ekartzen saiatu da honako artikulua hau, oraingo jolaslekua euskal idazlearen liburuaren lehen kapitulura mugatu bada ere. Hartara, Axularrek kapitulu osoa bilbatzeko erakutsitako eraz eta orain arte identifikatzeko zegoen iturbegi horretako pasartearen txertaketaz jardungo da bertan.

**Gako hitzak:** euskal literatura; Axular; *Gero*; erretorika; iturburuak.

## RESUMEN

Tal como reconoció Axular, en el libro *Gero* hay diversos párrafos recogidos a partir de libros de culto de la época. Sin embargo, no suelen ser pasajes introducidos como mero relleno, sino herramientas de la técnica retórica para apuntalar los capítulos. Al hilo de identificar alguna de esas fuentes (Guzmán, *Bienes de el honesto trabajo*, 1614) este artículo ha intentado traer una muestra temporal, si bien es cierto que, en esta ocasión, el campo de acción se ha limitado al primer capítulo del escritor vasco. Así, se tratará sobre los modos de tejer un capítulo completo que empleaba Axular y de integrar los pasajes de esa fuente que estaba por identificar.

**Palabras clave:** literatura vasca; Axular; *Gero*; retórica; fuentes.

## ABSTRACT

As Axular himself admits, in the *Gero* book there are some paragraphs taken from contemporary devotion books. They are not filler paragraphs, but elements at the service of the textual composition. Based on the identification of one of these sources (P. Guzman, *Bienes de el honesto trabajo*, 1614), this present article attempts to carry a provisional contribution, even if it is limited to the first chapter of the book. Thus, the article allows to appreciate the Axular's rhetorical way of organizing the cited chapter and introducing an until now unidentified source.

**Keywords:** Basque Literature; Axular; *Gero*; rhetoric; sources.

*et virgo non sum*  
San Kasiano

1. AITZINALDEA. 2. BIGARRENA. 3. HIRUGARRENA. 4. LAUGARRENA. 5. BOSGARRENA.  
6. SEIGARRENA. 7. AZKENTZA. 8. ERANSKINA. 9. ERREFERENTZIAK.

## 1. AITZINALDEA

Arrisku handian ohi da, gaztetako tabakoaren antzera paper zaharrak ere behin betiko utziak dituela pentsatuz, haien artera mamurturik itzultzen dena, udaberri mordoxka bizkarreraturik duenaren kartapazio haustuen barnean beti dagoelako gogoratzen ez den zerbait, aiduru, ataizean bezala, begietara ausarki so, eta inork ez dakiela zergatik, lehen unean bertan espero baino askoz buruhauste gehiago sorraraztearekin –paper horizatuen prosopopeia!– mehatxatzen duena.

Nik neuk ere, lasai bizitzen hasiko nintzela uste nuenean aurkitu nuen itxura inozoko kartapazio miragarri horietako sorta bat, zeharo ahaztua eta galdutzat nuena.

Aurreko batean aitortu nuen nork jarri zidan azken aldiz eskuetan, inongo erru(ki)rik gabe, idisko nafarra xaxatzeko akuilua, eta ez dut orain berriro haren izenik aipatuko, inork pentsa ez dezan nahi ez dudana leporatu nahi diodanik lagun zintzoari, baina egia da, dena den, harako hartan duela zezenketa-istorio amaigabe honek hasiera.

Eta kontua da, akuilua eskuan, aipatu kartapazio zaharrok irekitzean, iratxoen eran azaldu zela basidiskoa nire aurpegiaren aurrean, behinolako haur-ipuinetako kriseiluetatik ateratzen ziren haien antzera. Alabaina niri, ipuinetan ez bezala, desio kuttunez ase bainoago, eginkizunak eta betebeharrak ezarri zizkidan agertu bezain azkar.

Horietako bat da honako orrialde hauetan bete behar bide dudana: behiala Axularren testuaren atzetik burututako barrandari-lan baten aurkezpena eta hari buruzko hala-holako txostena.

## 2. BIGARRENA

Aitortu dezadan aurren-aurrenik ez dutela lerrook sarrera berezirik eta ez aparatu kritiko edo aparteko teoriarik eskatzen, ez behintzat gainerako lanetan garatu izan dudanetik bereizi eta urrun litekeenik, Axularren urratsen atzetik ibili izanaren on-dorio eta emaitza huts baitira oraingoan ere eranskin gisara lerrokaturik dakartzadanak.

Nolanahi ere, honetaz interesik duenak ildo bereko artikulura jo dezake, Torres jesuitaren *Philosophia moral de principes* delakoa ardatz izan genuen hartara, alegia (Salaberri, 2016). Gaurkoan, jakina, kartapazioetako beste autore bati egokituko zaio solasaldi-buru izatea.

Egia esan, aurreko espioitza-saialdiak berez bulkatzen ninduen artikulua luzeagoa –eta ondorioz, luzeegia– argitararaztera eta, hori zela eta, ezegoki iritzi nion, bestelakorik tartekatuz eta harako hura bukaezinago bilakaturik, ordukoak eta gaurkoak batera kaleratzeari.

Arrazoi –diogun– didaktikoak izan ziren, beraz, bikotea bakantzera eraman nindutenak, ongi asko ohartua bainintzen orduan eta ohartzen naiz orain ere Axularren lerroaldeok tratamendu integratuagoa eta osatuagoa beharko luketela haren jokamoldeak eta mailegatze-jolasak behar bezala atzeman ahal izateko.

Ez nuen orduan egin eta ez dut oraingoan egingo, horratik.

Irakurlearen eskuetan –edota balizko *edizio* komentatu baterako– utzi beharko da, hortaz, urdazubiarraren *puzlea* bateratzeko eta osatzeko eginkizun hori.

Guk azken adreilu solteak besterik ez dugu ekarriko eraikuntza-lan erraldoi honetara, jadanik ahituta egoteaz gain, ez baikenuke inolaz ere nahi izango, nobela erdi beltz horietako batean detektibe euskaldun batek hilik agertu zen agure jubitatuaren zaletasunez zioen bezala, «lantzean behin, aldizkariren batean, matraka berdinarengatik inguruan» idatzitako artikulua kaleratzen segitzea. Gizadiaren joira ikusita, harako agure *Gerozale* hari gertatua gertatzeko arrisku bizia baikenuke apika geuk ere.

## 3. HIRUGARRENA

Oraingo honetan, esan legez, Axularrek *Geroren* lehen kapitulua osatzeko erabili bide zuen «etorria» dakargu mintzagai. Eta «etorri» horrek badu, ustez, izen-deiturarik (Pedro de Guzman), badu fede-mesfidantzak ezabatzeko moduko berme doktrinarik («calificador del Santo Oficio de la Inquisición» da egilea) eta badu, baita ere

–ezinbestekoa honetartzeko–, idazlan argitaraturik: *Bienes de el honesto trabajo y daños de la ociosidad en ocho discursos* izenekoa (Madril, 1614)<sup>1</sup>.

Oro har, aurrekoan landu genuen Torresen *Philosophia moral* izeneko liburuaren garai bertasukoa da orrialdeotara dakargun obra aszetiko eta (aurre)kapitalista hau<sup>2</sup> eta, are nabarmentzekoa dena, gaztelaniaren esparruko debozio-literaturari dagokio bete-betean.

Bereziki azpimarratu nahi genuke azken ezaugarri hori, zeren eta gero eta argiago geratzen ari baita aspaldiko hipotesi hura, hots, garbiki zioena Axularrek joera gehiago erakusten zuela Iberia aldeko erromantze nagusian idatzitako liburuetarako, latinezko eta frantsesezkoetarako baino. Dela ikasketetako hizkuntza nagusia arras barneratua zuelako, dela Teologia-batxilergoa burutzean horrelako bibliografiarako joerak eta bi-deak irekita geratu zitzaizkiolako, kontua da Axularren baranoan orain arte azaldu-tako «eragile» behinenak gaztelaniaren *errepublikakoak* direna. Hor ditugu horren lekuko Granada, Torres, zertxobait Alvarado, oraingoan Guzman...

Euskararen *eremuko* eragileak, ezaguna da, nekez izan zitezkeen izan zirenak baino askoz gehiago eta handiago, literatur erreferentziak gutxi –eta orduko irakurle gehienek ongi ezagunak– edukitzean, larregizkoa zatekeen haietaz baliatzen aritzea eta intertestualitate-arietatatan jardutea. Hortik, beraz, Materren presentzia lausoa (eta urria, edonola ere), tantakako Leizarragarena (are urriagoa) eta, guk dakigula, deus gehiagorik ez (Salaberri, 2000).

#### 4. LAUGARRENA

*Gero* liburuaren lehen kapitulua eta, orain arte ezezaguna genuen testu-iturri berri batez baliatuz, haren osaketa-prozesua ditugu artikulua honen xedea. Ez dugu, halere, aukera galdu nahi izan «Iracurtçailleari» zuzendutako hitzaurrearen «etorkiaren iturburu» izan zitezkeen pasarte bakanen baten berri ere emateko<sup>3</sup>; hipotesi gisara, esan nahi baita.

Sobran legoke, ziurrenik, urdazubiarraren jokamolde eklektikoaz han eta hemen azpimarratu dena eta geuk ere sarritan mahairatu izan duguna errepikatzeari ekitea. Hark irakurleari luzatutako gutuna, argi da, tankera horretakoa da, eta ez iturbegi

1 Aurrera dezagun liburua osatzen duten zortzi diskurtsoetako lehen biak baino ez zituela Axularrek erabili lehen kapitulua bideratzeko.

2 Ohargarria da nola erabili izan den liburu honen erreferentzia berdin nagitasunaren aurka jotzeko (ikus González Ramírez, 2010) nola, beranduago –gure Lafarguek ikusi izan balu!–, soldatapeko lanaren apologia egiteko.

3 Ikus artikulua honen amaierako Eranskinean Guzman-en «Al Christiano lector» (1614, qq3-iferentzia) delakotik ateratako pasarteak.

bakar bateko urez zipriztindua. Baina bestelakoetatik xurgatutakorik islatu arren (ikus Salaberri, 2000), orain arte kaleratutakoa osatu besterik ez luke egin nahi gaurkoan dakargun ataltxoak, eta ez delako iturri-aniztasun hori osoki zehaztu.

Eklektizismoaren harian, lehen kapituluko «jolasa» genuke Axularren estiloaren ezaugarriak hobekixeago erakutsi litzakeena, eta, batik bat, jatorrizko testutik jasotako fitxa eta ohar gisakoen antolamendu berriko prozedura argixeago utziko lukeena.

Aitortu behar da, dena den, Axularrek ongi pentsatua, atondua eta zurkaiztua ohi duela kapituluen egitura nagusia hasieratik, eta egitura hori batik bat erlijiozko aipuen gainean sostengatua daramala lehendabizitik. Dotrina-munduko zurkaizt haien arteko eskala argumentatzailea izaten da gero eraikitzen duena.

Hartara, ondoko orrialdeetan istorio eta etsenpluen bidezko osatze, hornitze eta abe-raste-lana ohi du ageriko. Intentsitate handiagokoa batzuetan –gainerako ataletakoa baino gehiagokoa da lehen kapituluko, adibidez–, baina betiere garatu nahi denaren mailako janzte egokia. Axular bezalako idazleen jokamolde erretoriko landuaren erakusgarria, azken batean.

## 5. BOSGARRENA

Baina ikus dezagun astiroago lehen kapitulu horren zurkaizte eta ehuntze-lana.

Aspaldi hartu genuen Terrones del Caño Axularren garaiko erretorika eklesiastikoaren joera praktikoaren aholku- eta argi-emaile gisara eta, beste zurrunagorik ezean, haren *Instrucción de Predicadores* liburua baliatuko dugu oraingoan ere urdazubiarrak *Geron* egiten duenera hurbiltzeko eta, ahal den heinean bederen, ulertzeko iparrorraz modura<sup>4</sup>.

Esana da jadanik (Salaberri, 1997), eta ez dugu iltze berean berriz mailukatuko, Axularren testuen egituraketaren azpian ezin agerikoago dautzala predikaziorako eskema orokorrak. Eta zeharo zilegizko ez badirudi ere, horrelakotzat, hots, sermoitzat hartuko dugu aztertzeraz goazen lehen kapitulua ere.

Terronesen arabera, sermoiak honako parte hauek izan behar ditu, oro har: «exordio, narración, confirmación y epílogo» (Terrones, 1617/1960, 100. orr.).

4 Ez dirudi Axularrek Terrones del Caño ezagutzeko betarik izan zuenik. Halere, urdazubiarraren jokamolde erretorikoa ulertzeko erreferentzia aproposa aurkitzen da haren liburuan, zeren eta –barka bekigu geure hitzetara jotzea– «Axularren ikaskide izan ez bazen ere, zinez baieztatu daiteke tradizio beretik edanak zirela biak, bai Torresek eta bai Axularrek, biek ikasi baitzuten –batak lehenago, geroago besteak– Salamankako ikasgeletan» (Salaberri, 2016, 48. orr.).

Hona, banaka zehazturik, predikariak atal bakoitzean egin behar omen duena:

- a) Exordia<sup>5</sup>, non gaia latinez («con su libro y capítulo») eta «erromantzez» aurkeztu ondoren, hasi behar baita «por un dicho de un santo [...] o una autoridad de la Escritura, y sacar della algún discursito breve, con que se proponga la materia que se ha de tratar» (101. orr.).
- b) Narrazioa, laburra eta argia hasieran, «para que sin rodeos ni metáforas, entienda el auditorio qué materia se ha de tratar» (101. orr.), eta luzeago eta urrunetik hartua zertxobait beranduago, «tomado lo más lejos que se pudiere de la materia que se ha de tratar; cuanto más lejos, tanto mejor» (101. orr.).  
Atal bi horiek osatzen duten sarrera orokor horretan predikariak

ha de ir enriqueciendo el discurso por buenas razones, autoridades y ejemplos dulces, para engolosinar y aficionar al auditorio [...] hasta que venga el concluirse y aplicarse a la materia o tema que se propuso, de manera que parezca que vino a encarar con el tema todo el discurso, y que dél se siguió naturalmente el tema o materia (101. orr.).

- d) Berrespenaren atalean, aldiz,

se han de ir tratando los miembros de la materia o tema propuesto, por el método de doctrina, primero lo más general y después sus partes [...] Y en cada miembro o proposición que se asienta, ha de venir luego su confirmación con lugares de Escritura, comparaciones, buenas razones u otra variedades [...] que fuere a propósito (101. orr.).

Esanguratsua eransten den gaztigua:

advirtiéndolo [...] que para una cosa se han de traer muchos argumentos o pruebas, primero se digan los más eficaces [...] y luego díganse los demás, guardando siempre para la postre un argumento fortísimo o cosa muy sabrosa, porque quede el auditorio, como echado el sello o la apretadera, convencido y satisfecho (101. orr.).

- e) Azkenik, behin *gezurtatzea* burutu ondoren<sup>6</sup>, sermoiaren amaiera dakarren *epilogo*a letorke, «suma o epítome» delakoarekin hasi beharko litzatekeena, eta non ez baita esandako gutzia berriro errepikatu behar,

sino tocar y señalar por algún orden los argumentos más eficaces y los puntos que le pareciere al predicador [...] y aun éstos no se han de repetir por el orden que se

5 Ez ditugu hona ekarriko sermoia predikatzean formalki egin ohi zirenak: hasierako agurra, aitaren egitearena, agurmariaren baten tartekatzea, etab.

6 «La confutación, que es [...] donde se responde a las objeciones que probablemente se podrían poner contra lo que queda probado» (Terrones, 1617/1960, 102. orr.).



dijeron, sino como mejor vinieren, para un discurso apretado y breve, que se ha de hacer en el epílogo, en orde a meter en el alma del oyente lo que principalmente se pretendió en el sermón (103. orr.).

Balegoke, halaber, zaindu beharreko azken puntu bat epilogoaren amaieran, hots,

la amplificación o exageración de lo que queda dicho y probado hase de hacer con palabras más fuertes, más significativas y aun hiperbólicas [...], con algunos apóstrofes, interrogaciones, exclamaciones sobre lo dicho y probado en el sermón (103. orr.).

## 6. SEIGARRENA

Axularrek, lehen begiratuan atzematen denez, aski era estuan betetzen ditu ezezagun zuen Terrones garaikidearen gomendioak<sup>7</sup>.

Ondo ikusten da hori *Geroren* hasiera izango den kapituluan bertan. Buru-buruan, esaterako, eta «gomendioek» aholkatu bezala, Bibliaren lehen liburuarekin irekitzen du diskurtsoa; areago –eta ederrago–, gizakiaren sortzearekin berarekin –eta horrek dakarkion sinbolismo guztiarekin– ekiten dio gaia aurkezteari. Eta horretan ari dela, lehen liburuko bigarren bertseta hautatuz mahaigaineratuko du obra guztiaren ardatza izango den muinera iristeko latinezko esaldi prezeptiboa.

Denbora falta zaio Terronesek aholkatu urratsa betetzeko, jarraian planteatzen baititu, Patrologiak arlo latindarrean zein greziarrean dituen teologo-hermeneuta handienen hitzekin, *Gerorako* hautatu gaia garatzeko interesgarrien zitzaizkion interpretazioak.

Ezin ziur jakin nondik jaso zituen Axularrek san Tomasen eta san Krisostomoren pasarteak<sup>8</sup>, baina, guztiarekin, eta Akinoko doktorearen autoritatea gaitzetsi gabe izan bazen ere, *Urrezko Mihidunak* eskainitako beste arrazoi bat lehenetsi zuen urdazubiarrak, «ni narraikan pontuari hobeki hurbiltzen zaika» eta (1643, 22-23. orr.).

Garatu nahi zuen diskurtsorako ikuspuntua, hortaz, finkaturik utzi zuen Axularrek horrekin. Argumentatzea zegokion segidan, eta zer hobe ideiak *exempla* zenbaitekin, modu ezin ulergarriagoan eta goxoagoan, garatzea baino? «Ejemplos dulces, para engolosinar y aficionar al auditorio», zioen Terronesek.

7 Ez beti kapitulu guztietan berdin jokatzuz, noski, gai batzuk biziago eskatzen eta onartzen baitituzte, adibidez, epilogoiko galdera- eta harridura-ikurrak, apostrofeak eta beste.

8 Zail egiten da Akinokoaren *Summa* osoa izan zezakeela pentsatzea, baina eskura izan zezakeen, halere. Zalan-tza gehiago legoke Krisostomoren lan zabalaren aurrean, 1718ra bitartean –ordukoa da Montfaucon-ek apai-latu edizio osoa– titulu soltetara mugatzen baitzen Antiokiakoaren obra izateko aukera. Gogora bedi orotara hiru dozena aldiz libururutzen duela urdazubiarrak Akinatearen lekukotasuna –esan bezala, ia kasu guztietan *Summa* erraldoi baina aurkierrazetik jaso– eta berrogeita hamabost bat bider Krisostomoren, honen aipu gehienak homiletikoak direlarik eta halabeharrez obra eta orrialde-kopuru gehiegiren artetik bilduak.

Guzmanen liburua harrobi aberatsa da arlo horretan (ikus artikulu honetako Eranskinen aurkezten den testu-konfrontazioa) eta, hortaz, Bibliako pasarteren batekin eta teologoen azalpenekin uztartzen zihoala, harenetik jaso bide zuen gure idazleak lehen-dabiziko istoriotxo, san Kasianok kontatutakoa (ik. Guzman, 1614, 32. orr.), gradazio teologiko-diskurtsiboen karietara prezeptiboa-edo baitzen aurrenekoak tradizio erlijio-soko lekukotasunak izatea.

Garrantziko intzidentzien zerrenda aberaste aldera, azpimarratzekoa da –hartan berresten bide baita, besteak beste, Guzmanen iturriaren erabilera– garraiatu aipu haietako batean Axularrek burutu zuen akatsa (1643, 23-25. orr.). Nonbait, fitxa gisakoetan ondozkaturik zeuzkan gure idazleak berean tartekatu behar zituen pasarteak (Guzman, 1614, hurrenkera honetan: 16-17, 12, 13. orr.), baina san Ambrosioren erreferentzia ematean (iturburuan, «S. Ambros. Sup.» izanik, lerro batzuk gorago zegoen «Praefat. in Lucam» delakoa behar zuena), nahasi egin bide zen urdazubiarrak eta, Guzmanenean «Sup.» hari zegokionaren orde, berak ondutako testuan bertan gorago zeukanetik jaitsi zuen datua. Berean –liburuan 24. orrialdea izango zen hartan–, *El Tostado* «Abulentsea»-ren «in praefat. in Levit.» zeukan jaso eta, errakuntzaz ohartu gabe, huraxe erantsi zion Ambrosioren izenari (1643, 25. orr.).

*Jentilen* –kristau ez zirenen– etsenpluak eta haiengandik ikas daitezkeenak etenketak –muga– diskurtsibo-bisualaren ondoren etorriko dira segidan, izan ere, lehen atalean (§1; 1643, 25-hk.) hasiko baitira agertzen eta, taxuz eta esajeraziorik gabe bada ere, ugaltzen, betiere xede nagusia argi delarik: jendea alferkeriaren arriskuetatik at uztea eta bekaturako aitzakia omen zen hura desterratzeko baliabideak jartzea.

Nabarmentzekoa da ahalegin errukior horretan Axularrek, Aristoteles eta Plutarko bezalako autoritateaz baliatuz<sup>9</sup>, egiten duen argudiatze estentsiboa: jendea lan erraldoietara behartzetik eta lanez zamatzetik, egungo politikan ohiko bezain klasiko bilakatu den aukera miresgarria planteatzeraino, hau da, «erresuma»-tik kanpo gerrak pizteraino doana. Benetako atzeriak eta etsaiak behar dituen aukera honek ernatu egiten du, antza, gizakia eta ez omen dio loakartzen uzten.

Nonbait ahaztu egin zitzaion urdazubiarrari –zegokien garaitik at zeuden-eta orduko euskaldunak ere– munduko hautsak harrotzen ibiltzen direnek nahiago izaten duten beste abantaila bat ere aipatzea: erresuma barneko erresuminak, ezinikusiak eta etsaigoak ahaztu egiten direla kanpoko etsai larriaren aurrean, eta, aldi berean, trinkotuago eta bateratuago gertatzen dela erresuma barnekoen arteko *fraternité*

9 Interesgarria Guzmanenean (1614, 15. orr.) Aristotelesen ondoan datorren Plinioren lekukotasunarekin egiten duena: haren hitzak euskaratu arren («cuya fabrica dize tambien Plinio se començo, para que el pueblo no estuviessse ocioso [Ne plebs esset otiosa]» > «zein eragin baitzituen errege Faraonek, iendeak alfer etzeudezin amoreakgatik»), testua aipuz beteegi edo ez uztearren –beherago ez baitu Plinioren izena aipatzeko eragozpenik [ikus 1643, 35. orr.]–, Axularrek ez du inolako erreferentziarik ematen (1643, 25-26. orr.). Eta berdintsu jokatu du aurrerago ere (1643, 31. orr.).

delakoa eta, agintari moderno horietakoren batek esango lukeen moduan, biziki area-gotuago identitatea eta pertenezia-sena.

Baina ez, Axularrek ez zion probetxu politiko hori ikusi kanpoko etsaiak izateari, Guzmanen «plutarko»-ren ildoan eta kristau zintzo gisara, probetxu handien eta printzipalen iritzi baitzien alferren trabailarazteari, lotien iratzartzeari eta ezantsiatuen adoretzeari. Erlijiozko sinesmena gailen, bada.

Eta berriro ere, etsaien probetxuaren aldeko jarrera horretan san Krisostomoren lekukotasuna baliatuko du jarraian, berau ere nondik atera zuen –haren obratik zuzenean, agian?– ziur ez dakigula.

Nolanahi den, Guzmanek erantsitako ideia bat hanpatuz ixten du gure idazleak atala (1614, 62. orr.).

Bigarren atala (§2; 1643, 29-hk.) bete-betean eskaintzen zaie istorio eta lekukotasun historiko laiko-profanoei, batzuk, gehienak, Guzmanen obratik jasoak bide direnak; bakanen bat, Periklesena eta korintiarrena hain preseski, jatorrizkotik hartuak ez diruditenak.

Duen bitxitasun-ukituagatik nabarmendu nahi genuke korintiarrek alferrekiko zuten portaeraren amaieran Axularrek egiten duen iruzkin propioa, idatzizko diskurtsoetan aholkatua izaten ez dena, bidenabar esateko. Antza denez, ez zaio irakurle eskarmen-tatuaren konbertsiorako aski iruditzen adibidea bera ekartzea eta ezinbestekotzat jotzen du korintiarren garaian egiten zuten hura berrestea eta bere garaikide alferrekin berdin jokatzeko proposamena egitea. Eta proposamena –horratx Axularren espiritu urrikalkorra– ez da edonolakoa: alferrak hiltzea (ederragoa da haren eufemismoa: haiei «bizia edekitzea») aldarrikatzen du gure idazleak ezer esaten ez duela dirudien lerroska labur hartan: «on lizate orai ere, halakoekin hala egin baledi» (1643, 32. orr.).

Horren aurrean, pentsatzekoa da zer ez ote zuen proposatuko hogeita hamar urte lehenago Sarako «sorgin» omen ziren haien aurka –hau da, frantziar monarkiaren eta sinesmen kontrarreformistaren alde–, bera bertako erretore edo apaiz nagusia zenean<sup>10</sup>.

Oldozpenak oldozpen, Guzmanen liburutik ateratako beste istorio eredugarri gehiagorekin segituko du alfer madarikatuen aurkako diskurtsoa, tartean iturburu identifikatu gabeko besteren bat dagoelarik.

Guztien ondoren, eta aipuen ohiko gradazio tridentinoari uko egin gabe (ikus Salaberry, 1998, 233-hk.), filosofoen zalantza eta borondate oneko iritzi okerreirek itzuten zaie tarte bat diskurtsoaren tesia –hots, «alferqueria» eta «alfertasuna gauça gaixtoa,

10 Auzi honi buruzko argibide gehiagorako, ikus Salaberry (2005, 426-429. orr.).

perilosa eta norc bere ganik egotztecoa cela» (1643, 34. orr.) zioena– teorikoki ere berretsi ahal izateko.

Eta argudioari tiratuz, zehaztu egin nahi izango da zergatik ez den alferkeriatan aritu behar, izan ere, gizakiak, izaki guztiek, esentziaz baitira zerbaitetarako sortuak, egin-kizun garbi eta zehatz bat betetzeko eginak nonbait, hegaztiak hegan egiteko bezala, gizakiak lan egiteko, trabailatzeko jaiok.

Oraintsu adierazi bezala, garrantzi berezia du argudio-gradazioaren gaiak esku artean darabilgun diskurtsoan, eta ondoren datorrenak egoki islatzen du noraino zuen Axularrek bereganatua aipatu mailakatze estu horren betebeharra, agerikoa baita artean ez diola leihorik zabaldu nahi izan «munduko gauzen» lekukotasunari. Alabaina, dela gauza, dela animalia, azken orrialdeetan agertuko du haiek ere alferraren eta alferkeriaren aurka daudela, aurkako sen hori berezko balute bezala erakutsiz.

Eguzkiaren lekukotasuna lehendabizi, zuhaitzena gero, irudi garrantzizkoenak eta eredugarrienak, halere, gizakiarenak bezalatsuko ezaugarriak dituzten bizidunen agertzetik etorriko dira berehala. Tradizio kristau zabalean gogokoen diren zomorroak, bada, protagonista. Azken lerroak inurriei eta erleei eskainiak dira, beraz, nonbait haietxek beharko baikenituzke gizakiok ere bizimodu-eredu.

## 7. AZKENTZA

Hona ekarri gaituzten puntu bietara itzulirik, eta labur-zurrean bada ere, begi-bistakoa da lehen kapituluaren ehuntze-eskema horretan egokiro begiratu zuela Axularrek Terronesek gomendatzen zuen diskurtso-egituraketa, eta, eginkizun hartan zegoelarik, ongixko baliatu zuela Guzmanen liburutik xurgatutakoa ere. Horrela jokatzuz, jakina, ezin hobeto erakutsi zuen nolako erraztasunaz irentsi eta digeri zezakeen besterena zena eta noraino egin zezakeen guztiz bere handik eta hemendik garraiatutakoa. Axularren trebetasunak erantsi zion edertasunaren *plusa* gutxietsi gabe, erretorika eklesiastikoak aholkatzen eta bilatzen zuena baino ez, beraz.

Uste izatekoa ere da –honatx artikulua azken korolaria– *Gerok* dituen kapitulu gehienetan jokatu zuela berdin antzean gure idazleak. Baina, tamalez, gupidagabeki burututako ehizaritza egoskorak baizik ez lezake altxor hori guztia deskubri.

*Aramaion, 2017ko ekainaren 13an*

## ERANSKINA

## GERO

## OHARRA

Ondoren ikus daitekeen legez, *Gerotik* jasota erantsi den kapitulua, oso-osorik, ezkeraldeko zutabearen kokatua dago<sup>11</sup>.

Bestalde, antzak, kideetasunak eta ustezko iturburuak identifikatzeko kontraste eta erreferentzia nagusi gisa, Pedro de Guzmanen *Bienes de el honesto trabajo y daños de la ociosidad en ocho discursos* (Madril, 1614) izeneko obra baliatu dugu<sup>12</sup>. Handik garraiatuak diruditen pasarteak dira Axularren testuaren parean txertatu direnak<sup>13</sup>.

## IRAKURTZAILLEARI

## AL CHRISTIANO LECTOR

Egun batez, konpaina on batean, euskal-dunik baizen etzen lekhuaren nengoela, ekharri zuen solhasak, izan zen perpausa, etzuela, deusek ere hanbat kalte egiten arimako, eta ez gorputzeko ere, nola egitekoen geroko utzteak, egunetik egunera, biharretik biharrera luzatzeak [...] Eta hala deliberatu nuen [...] liburutto baten, bi partetan partiturik, gero hunen gainean egitera (Axular, 15-16. orr.).

Por no esta ocioso unos dias [...], en un lugar [...] tomé la pluma para escribir contra el ocio, descubriendo todos los principios, efectos, y circunstancias del. Y determineme a ello en una conversacion con una persona [...], en que tratamos de los muchos daños que la ociosidad hace [...] (Guzman, qq3).

Baiña ikhusirik zein gauza guti edireiten den euskaraz eskiribaturik, gogan behartu naiz eta beldurtu, etziren bideak asko segur eta garbi, baden bitartean zenbait trabu edo behaztopaharri. Eta halatan hartu dut gogo, lehenbiziko parte hunen, lehenik benturatzeko, eta berri iakitera bezala aitzinerat igortzeko. Hunek

He me holgado se aya ofrecido esta ocasion, de embiar delante este breve tratado, para que sirva como de explorador, ò espia, quiza perdida, y vea si està seguro el campo, en que militan las lenguas, y me trayga nuevas del gusto, que ay desta manera de escribir [...] Conforme a la relacion, y nuevas que me

11 Axularren testuaren honetarako Armiamak eskaini bertsioa erabili da, hots, <http://klasikoak.armiarmaeus/idazlanak/A/AxularGero.htm>

12 Maiz asko eztabaidatu izan bada ere iturburuaren bila aritzeak dituen zailtasunez, oharño bat erantsi nahi genuke Axularren iturri hau dela eta. Izan ere, alferkeriaren gaia jorratu duten autore kontrarreformista askok ikuspegi eta tratara berdintsuak erakutsi dituzte eskuarki, eta areago, ekarri ohi dituzten adibideak, istorioak eta aipuak berak ere berdin-berdinak suertatzen dira kasu askotan. Horrek, esan beharrik ez da, biziki gaizten du eginkizuna.

13 Kapituluaren osaketaz jabetze aldera, bilduma barnean sartu da Torresenetik jasotakoren bat ere (ikus Salaberri, 2016). Guztiarekin ere, ez da hemen aintzat hartu *silva* edo *locietatik* bildua izan zitekeen aipurik, erabiliegiak suertatu baitira deboziozko liburu guztietan inoren iturri zuzentzat hartu ahal izateko.

zer iragaiten den, zer begitarte izaiten duen, eta nor nola mintzo den, abisu eman diazadan. Gero abisu haren arauaz ethorkizunerat gobernatzeko: eta bigarren partearen kanporat atheratzeko, edo barrenean gelditzeko eta estaltzeko (Axular, 16. orr.).

truxere, saldra à luz, ò no, otro mayor esquadron de algunos trabajos mios [...] que aora estan como en celada, aguardando lo que he dicho (Guzman, qq3).

Embío al Christiano Lector la muestra del paño: con toda libertad puede dezir lo que le parece para que yo ò desembuelva, y corte esta tela, ò la guarde recogida y escuse el sacarla a luz (Guzman, qq3 ifrentzua).

## LEHENBIZIKO KAPITULUA

Gure Iaungoikoak, munduko bertze gauza guztien ondoan, gizona bera, bere gainki, bere imajinara eta idurira, bat ere bekhaturik eta bekhaturen kutsurik ere gabe, anhitz donu, dohain, eta abantail suertez dotaturik, egin zuenean, ibeni zuen berehala, lurrak zuen parterik, eta aurkientzarik hoberenean, lurreko parabisuan, lekhu plazerez bethean. Eta manatu zuen lant zezala, labora zezala, eta begira ongi parabisu hura: *Posuit eum in paradiso voluptatis, ut operaretur, et custodiret illum* (Gen. 2) (Axular, 21-22. orr.).

No queria el Señor al hombre ocioso, assi para darle ocupacion contra el ocio, le entregò el jardin del Parayso; *para que le labrasse y guardasse (Ut operaretur, et custodiret illum. Gen. 2. num. 15.)*<sup>14</sup> (Guzman, 5. orr.).

Ordea nola lur-lantzea, aphaintzea, laboratzea, eta begiratzeko beharrean eta premian ere iartzea, bekhatutik sortzen eta heldu diren xertoak, landareak, fruituak, eta ondoreak baitira, eta oraino orduan ezpaitzen bekhaturik, eta ez bekhaturen aierurik, omenik eta ez aiphamenik ere, badirudi ezen etzela halaber, oraiño orduan, parabisu haren lantzeko, eta begiratzeko premiarik.

Zertako, beraz, eman zioen orduan, Iainkoak gizonari, manamendu hura? Ihardesten du San Tomasek, erraiten duela: *Nec tamen, illa operatio esset laboriosa sicut post peccatum, sed fuisset jucunda, propter experimentum virtutis naturae. Custodia etiam*

14 Euskarazkoan bezalatsu, gaztelaniazko testuan alboan doazen aipuak eta erreferentziak ere hemen testuaren barnean emango dira parentesi artean.

*illa non fuisset contra invasorem, sed esset ad hoc, quod homo sibi paradisum custodiret ne ipsum amitteret peccando* (S. Thom. 1. p. qu 102 art. 3). Etzen ez orduko trabaiilatze hura, penagarri izanen, orai bekhatu eginez gero bezala. Baiña hura izanen zen atsegin hartze bat, eta bere plazerera, eta aisiara zegoela, bere indarraren eta anzearen frogatze bat. Eta begiratzea ere, ez etsaietarik, baiña bereganik, eta beretzat bekhatuz galtzetik begiratzea, izanen zen. Hunela dio San Tomasek.

Baiña San Krisostomok emaiten du bertze arrazoin bat, ni narraikan pontuari hobeki hurbiltzen zaikana, erraiten duela: *Propterea praecepit Deus ut operaretur illum, si enim laboris omnis fuisset expers, ex nimio otio, in ignaviam fuisset prolapsus* (Chrys. hom. 14 in cap. 2 Genes. tom. 3). Egia da, etzen oraiño orduan, lur-parabisu hartan egitekorik, etzen trabaiilatzekeo premiarik. Ordea halarik ere, etzuen nahi Iainkoak, han zegoena, zegoen geldirik: ez trabaiilatzetik alfertzera, eta nagitzera ethor etzedin, eta zein gauza gaixtoa zen, eta den alferkeria, aditzera emaitteagatik (Axular, 22-23. orr.).

Kontatzen du Kasianok, Paulo abade zahar hura, palma adar batzuk harturik, hetzaz, zare, saski eta otharre egiten haritzen zela eta gero azkenean, egin ondoan, astearen buruan, guztiak erratzen eta desegiten zituela (Casian. lib. 18 cap. 14). Zeren batz, nola herrietarik urrun baitzegoen, gehiago baitzekarkeien garrarioaren gastuak, obraren balioak baiño: eta berriz bertzea, zeren trailla hura guztia orazinotan eta othoitzetan unhatu ondoan, alferkeriatik ihes egiteagatik, hartzen baitzuen, eta ez ondoko irabaziagatik.

Gure Iaungoikoak eman zituen lege zaharrean seietan ehun eta gehiago manamendu eta zirimonia suerte, eta hekin batean hanbat egiteko, non erraiten baitu Iondone Petrik, ez berak, eta ez haren aitzinekoek ere, ezin bururik egin zutela, eta ez iasan hain karga handia. *Quod neque patres nostri, neque nos portare*

Dize [...] Casiano del Abad Paulo, santissimo viejo, que trabajava todo el año, haciendo obras de palma, y al cabo del las quemava, porque este trabajo solo le tomava, por huyr de la ociosidad (Casia. li. 10. cap. 24) (Guzman, 32. orr.).

Preguntan algunos, por que el Señor cargò de tantas ceremonias y ritos, y de tanto genero de sacrificios à este mismo pueblo, obligandole con un numero innumerable de preceptos, que llegavan à seyscientos y treze [...] que bastavan a quebrantarlos los mismos huessos, parte de la intolerable carga, que encarece el Apostol S.

